

**IRAGARKIA****Eraikinen jabeek ITEa egiteko duten betebeharrak**

Herritar guztiek jakin dezaten eta eraikinen jabeek gogoan izan dezaten adierazten da jarraian ageri dena:

-Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 200. artikuluan arautzen da Eraikinen Ikuskapen Teknikoa (EIT), eta bertan ezartzen da ikuskapena eskatu behar zaiola teknikari gaitu bati, argitu dezan eraikina zer kontserbazio-egoeratan dagoen eta Udalari aurkeztu beharko zaion txostena eman dezan.

-Azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuak eta maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretuak (241/2012 Dekretua aldatzen duena) zehazki arautzen dute eraikinen azterketa teknikoa nahiz txostenetan jaso beharreko edukia, baita esku hartzeko proposamenak eta epeak ere, EITren beste alderdi eta dokumentu batzuekin batera.

-EITk batez ere eragiten die eraikin eta eraikuntza katalogatu edo babestuei, berrogeita hamar (50) urtetik gorako etxebizitza-eraikinei eta "antolamenduz kanpo" kategorian sartutako eraikinei, baina ez die eragiten fatxada bideren batera edo erabilerako publikoko espazioren batera begira ez duten familia bakarreko eraikin isolatuei.

-Maiatzaren 20ko 80/2014 Dekretuan dago jasota EIT barruko esku-hartzeen programazioa, eta hau da programazioa:

a) 2018ko ekainaren 27ra arte, 2017ko ekainaren 27an 50 urte edo gehiago beteta dituzten eraikinak.

b) 2017ko ekainaren 28tik aurrera 50 urte betetzen dituzten etxebizitza-erakinek eta egun horretatik aurrera katalogatutako eraikinek urtebeteko epea izango dute EIT igarotzeko, adin hori betetzen duten egunetik edo kalifikatzen diren egunetik zenbatzen hasita.

Horren inguruko informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko, jo Laudio Udalaren Hirigintza eta Ingurumen Arloa (Herriko Plaza, z/g – Tf. 944034870 - hirigintza@laudio.eus).

ANUNCIO**Obligación de los propietarios de edificios de realización de ITE**

Se pone en general conocimiento y se recuerda a los propietarios de edificios lo siguiente:

-Que la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo regula, en el art. 200, de la Inspección Técnica de Edificios (ITE) que establece la obligación de encomendar la realización de una inspección por técnico competente para determinar el estado de conservación de la edificación y emitir un informe para su presentación en el Ayuntamiento.

-Que el Decreto 241/2012, de 21 de noviembre y el Decreto 80/2014, de 20 de mayo (que modifica el Decreto 241/2012) regulan detalladamente la inspección técnica de edificios y determinan el contenido de los informes y, en su caso, propuestas y plazos de intervención, entre otros aspectos y documentos de la ITE.

-Que las edificaciones afectadas por la ITE son básicamente las construcciones y edificaciones catalogadas o protegidas, los edificios de uso residencial con una antigüedad superior a los cincuenta (50) años, así como los incluidos en la categoría de "fuera de ordenación", estando excluidos las edificaciones unifamiliares aisladas que no tengan fachada a vía o espacio de uso público.

-Que la programación general de actuaciones sometidas a ITE, regulada por el Decreto 80/2014, de 20 de mayo, es la siguiente:

a) Hasta el 27 de junio de 2018, los edificios que a fecha 27 de junio de 2017 tuvieran una antigüedad igual o superior a 50 años.

b) Los edificios de uso residencial que cumplan 50 años a partir del 28 de junio de 2017 y los edificios catalogados a partir de esa misma fecha, deberán realizar la ITE en el plazo de un año desde que cumpla dicha antigüedad o desde la fecha de su calificación.

En el Área Municipal de Urbanismo y Medio Ambiente (Herriko Plaza, s/n – Tf. 944034870 - hirigintza@laudio.eus) se facilitará la información y documentación relacionada disponible en el Ayuntamiento.

Laudio, 2017ko otsailak 8 Llodio, a 8 de febrero de 2017

Alkate-udalburua / El alcalde-presidente

- Jon Iñaki Urkixo Orueta-